

irakurleak ingelesez aurkituko ditu bilduma
an. Eta beste ehunka eta ehunka. Alemanez eta
ez ere oso erabiliak dira. Guk, ordea, laburta-
n ohoretan bazterrean utzi ditugu.

Eginagatik dizdira, denak urre ez dira.
Erregalatutako astoari ortzetara ez begitu.
siltzen denak baietz esaten du.
abilen harriari ez zaio goroldiorik lotzen.
lobe txori bat eskuan ehun baino ezkurreen.
gun egin dezakezuna ez biharko utzi.
ola etorri ala joan.

- Inoiz baino hobe berandu.
- Katuak zazpi bizi.
- Sagar ustel batek besteak ustelarazi.
- Joanak joan.
- Tantaka ontzia bete.
- Egunero ikasten da zerbait.
- Bistatik urrun, bihotzetik urrun.
- Zu nolako, besteak uste halako.
- Batasunak indarra dakar.
- Ausartarentzat oilokia, uzkurarentzat zakurkia.
- Zakur zaunkalaria ez da horzkalaria.

Edo bestaldera esateko, beste hizkuntzetan aur-
kitzen ditugunak geurean ere bai. Asko eta asko erro-
matarren denboran eta Erdi Haroan esaten ziren eta
lehenago esan dugun bezala, latinaren bidez Europa-
ko hizkuntzetara hedatu ziren. Honatx batzuk:

* Numquam ubi diu fuit ignis, defecit vapor. Ke
gabeko surik ez.

* In mari pisces maiores devorant minores. Big
fish eat little fish. Arrain aundiak txikia jaten du

50 "Euskal Atzetik" - Cohen Garate
Guz Euskal Liburak
1995

* Qui altari deserviunt, cum altari participant.
San Pablobaldarean lan egiten dunak aldaretik jan.

* Homo proponit, sed Deus disponit Gizonak
ekin, Jaungoikoak egin.

* Truditur dies die (Hor.) (Egunak egunari bultza
egiten, kanpora botatzen). Egunak eguna urrian du.

* Nihil est toto, quod perstet, in orbe (Ovid.)
Mundu hunetako gauzak eztaude behin ere krozkra
batean (AX).

* Dum vivimus vivamus. Hil arte bizi

* Senem iuventus pigra mendicium creat. Ie Gaz-
taro alferrak dakarke zahartze landerra (OI).

* Conveniens vitae mors fuit ista tuae (Ovid.):
Nola bizi hala hil.

* Vestis virum facit (Erasmus, Adagia). Gizon
ongi jantzia, ongi ikusia.

Badira, ordea, beste zenbait hizkuntzaz oso eza-
gun diren hitz zuhurrak eta euskaraz erabiltzen ez
direnak. Dozenaka adibide ekar nintzake baina labu-
rren ohoretan honatx guttiok:

1. - All's well that ends well.
- Ende gut, alles gut.
- Si todo termina bien, todo ha sido bueno.
- Tout est bien qui finit bien.
- Tutto è bene che finisce bene.
2. - Grass grows not upon the highway.
- Auf dem Fahrdamm wächst kein Gras.
- A chemin battu il ne croît point d'herbe.
- En camino trillado no crece hierba.
3. Besteok ere ezagunak dira atzerrian. Gure ar-
tean ez horrenbeste.